

## OHIKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2009ko urriaren batean gaueko bederatiak direnean, bildu dira, Ohiko Udalbatzarra ospatzeko, ondoko Korporatiboak:

IÑAKI OIARTZABAL ZINKUNEGI, Alkate-Lehendakaria.  
BITTOR ASTIGARRAGA ZUGASTI, Zinegotzia.  
JOSEBA IÑAKI LABAKA BERISTAIN, Zinegotzia.  
LUIS BERRONDO LANCETA, Zinegotzia.  
LUIS ARZALLUS AMENABAR, Zinegotzia.  
JOSE LUIS ALBISUA LASA, Zinegotzia.

JOSUNE ARRUTI EIZAGIRRE, Zinegotzia ez da bilkura honetan egongo arrazoi justifikatuengatik.

Idazkari lanetan, Udaleko Bitarteko Idazkari kontuhartzailea den MARIA ETXEBERRIA URRETABIZKAIA.

Alkateak hasiera eman dio udalbatzarrari ondoko gai zerrendaren arabera:

### **LEHENENGO PUNTUA: 2009KO UZTAILAREN 16KO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKOA BADA.**

Aipaturiko akta zinegotziek aho batez onartzen dute.

### **BIGARREN PUNTUA: 1/2009 ZENBAKIA DARAMAN KREDITU ALDAKETA TRANSFERENTZIEN MODALITATEAN ONARTZEA, BIDEZKOA BADA.**

Alkateak kreditu aldaketaren berri ematen du.

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (bajak)

<b>Partida</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gutxipena</b>	<b>Amaierako Kreditua</b>
1.0000.642.432.00.01	OO.AA-ren aldaketa	30.000,00	22.000,00	8.000,00
1.0000.601.511.00.02	Baserrien seinalizazioak	44.000,00	44.000,00	0,00
		74.000,00	66.000,00	8.000,00

Gehitutako diren kredituak biltzen dituzten gastuen partidak (altak)

<b>Partida (*)</b>	<b>Izena</b>	<b>Hasierako kreditua</b>	<b>Gehikuntza</b>	<b>Amaierako kreditua</b>
1.0000.214.431.00.01	Altzari eta bestelakoak	400,00	1.800,00	2.200,00
1.0000.227.451.00.01	Musika eskola	4.500,00	5.860,00	10.360,00
1.0000.227.511.00.01	Desbrozadora eta elur kentze lanak	3.000,00	12.000,00	15.000,00
1.0000.226.313.00.01	Zaharren eguna eta bidaiak	3.000,00	3.000,00	6.000,00
1.000.226.452.00.05	Herriko jaiak	14.000,00	4.000,00	18.000,00
1.0000.601.451.00.01	Borondegiko ondoko urbanizazioa	190.620,00	39.340,00	229.960,00
<b>GUZTIRA</b>		<b>215.520,00</b>	<b>66.000,00</b>	<b>281.520,00</b>

Hori dela eta, Alkateak proposatzen du aipaturiko kreditu aldaketa onartzea.

Jarraian, Luis Arzallus zinegotzak hitza hartzen du eta esaten du, ea Borondegiko obren urbanizazioan badakigun zenbait diru kostatuko den.

Alkateak erantzuten dio, oraindik datuak ez dakizkigula.

Jose Luis Albisuak dio, uztailean egindako Plenoan onarturiko aurrekontuan, desbrozadoran partidan 3.000 € zeudela eta orain beste 12.000 € igotzea aurreikusi dela

Eta Luis Arzallusek aipatzen du, festak lehenetsuneko gauzak ez zirela komentatu zutela festa baino gauza inportantegoak badaudela eta orain partida hau igotzen da.

Alkateak erantzuten dio, orduan ere esan zela partida hau igoko zela.

Luis Albisuak dio, aurrekontuan lehen ez baino orain badaudela koordinatzea.

Luis Arzallusek dio, baserrien seinalizazioko partida jeitxi dela Udaletxean diru hori izan gabe.

Jose Luis Albisuak aipatzen du, 28.000 € hori orduan Udaletxean ez dituela izango eta dirua nondik aterako den.

Alkateak erantzuten dio, diru hori beste partida batetik izango dela.

Jose Luis Albisuak dio, beti Udala gauzak izkutatzen ari dela.

Ondoren, Idazkariak dio, 21/2003 Foru araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoaren arabera, kreditu aldaketa hau ez dela beharrezkoa jendeaurrean jartzea alegazioak egiteko eta kontabilitatean apunte zuzena egingo dela.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta eta Bittor Astigarraga Zugasti.
2. Aurkako botoak: Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, kreditu aldaketa onartua gelditzen da.

**HIRUGARREN PUNTUA:  
UDALETXEKO ORDEZKARIEN ALDAKETA ORGANO KOLEGIATU ETA  
MANKOMUNITATEETAN ONARTZEA.**

Alkateak ondoren aipatzen diren erakundeetan parte hartzeko ondoko udal ordezkariak proposatzen ditu:

Saiaz Mankomunitaterako: Titularra: Iñaki Oiartzabal Zinkunegi.  
Ordezkoa: Bittor Astigarraga Zugasti.

Urola Erdialdeko Zerbitzu Mankomunitaterako: Titularra: Iñaki Oiartzabal Zinkunegi.  
Ordezkoa: Bittor Astigarraga Zugasti.  
Titularra: Luis Berrondo Lanceta.  
Ordezkoa: J.Iñaki Labaka Beristain.

San Martin eskola kontseilurako: Titularra: Iñaki Oiartzabal Zinkunegi.  
Ordezkoa: Luis Berondo Lanceta.

Iraurgirako: Titularra: Iñaki Oiartzabal Zinkunegi.  
Ordezkoa: Bittor Astigarraga Zugasti.

Alkateak ondoko Batzorde Informatzaileen eraketa eta ordezkapena proposatzen du:

Gizarte Ongizate eta Gizarte Zerbitzuetako Batzordea: Iñaki Oiartzabal Zinkunegi.  
Kultura eta Gazteriako Batzordea: Luis Berrondo Lanceta.  
Jaiak, euskera eta kiroletako Batzordea: Joseba Iñaki Labaka Beristain.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta eta Bittor Astigarraga Zugasti.
2. Aurkako botoak: Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, aldaketa onartua gelditzen da.

## **LAUGARREN PUNTUA: BAKE EPAILE TITULAR ETA ORDEZKOAREN AUKERAKETA.**

Idazkariak dio, Bake Epaille titular eta ordezkoaren 4 urteko epea amaitu denez, aukeraketa honen prozesua hasi da. Bake Epaille titular eta ordezkoa aukeratzeko legeak aipatzen dituen beharrezko pauso guztiak eman ondoren (publizitatea...), karguak betetzeko epe barruan Eugenio Ezama Urdalleta, Jose Lino Irulegui Zabala, Lidia Irigoien Jauregi, Irati Aizpuru Aizpuru eta Edurne Telletxea Murgiondo aurkeztu ziren.

Ondoren, Alkateak dio Bake Epaille titular Jose Lino Irulegui Zabala eta ordezko bezela Eugenio Ezama Urdalleta Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiari proposatzen dela.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain, Luis Berrondo Lanceta eta Bittor Astigarraga Zugasti.
2. Aurkako botoak: Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, onartua gelditzen da.

### **BOSTGARREN PUNTUA: ZENBAIT MOZIOEN AZTERKETA.**

Puntu honekin hasi baino lehen, Bittor Astigarraga Zugasti zinegotzia Plenotik ateratzen da.

Alkateak Erniope Elkarteak Maritxu Uzkudun Etxenagusia herritarraren berehalako kaleratzea dela eta aurkezturiko mozioa literalki irakurtzen du:

1.- Maritxu Uzkudun Etxenagusia herritarraren berehalako kaleratzea eskatzen dugu.

2.- Maritxuren nahiz Euskal Preso Politikoen inguruan egingo diren ekimenak babestuko ditugu, deialdietan parte hartuko dugu eta ordezkari bat egongo da ekimen guztietan.

3.- Herriko txoko batean ( esaterako dantzaleku...) panel egonkor bat egiteko lekua, non bertan Maritxuren askatasuna eta bahiturik daramatzen egun kopurua agertuko den bere argazkiarekin batera.

4.- Erabaki guzti hauen nahiz idatziaren berri herritarrei ematea etxez etxe.

5.- Honekin batera aurreko mozioko puntu guztiak berresten ditugu.

Bozketa egin eta Batzordearen proposamena aztertu ondoren, onartu dute ondoko ondorioekin:

1. Aldeko botoak: Luis Arzallus Amenabar eta Jose Luis Albisua Lasa.
2. Aurkako botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki Labaka Beristain eta Luis Berrondo Lanceta.
3. Abstentzioak: ez dago.

Beraz, mozioa ez da onartzen.

Jose Luis Albisuak galdetzen du, ea mozioko hirugarren puntua den konfliktiboa.

Alkateak erantzuten dio, mozioa ez onartzearen inongo arrazoirik ez dugula emango eta ez dugula onartuko.

Jose Luis Albisuak dio, garbi dagoela gure mozio politikoa ez duzutela onartu nahi eta beste mozio politiko batzuk onartzen dituzutela.

Harrobiko mozioari dagokionez, Iñakik dio Errezilgo Ezker Abertzaleak Estra-Aintza harrobiaren inguruan aurkezturiko mozioa ez dugula onartzen.

**SEIGARREN PUNTUA:  
ORDAINAGIRIEN ONARPENA.**

Ordainagiririk ez dago.

**ZAZPIGARREN PUNTUA:  
EUSKERA IKASTEKO DIRULAGUNTZEN AZTERKETA.**

2009ko irailaren 24ean egindako Batzordean Idazkariak gai honen berri eman zuen. Han esandakoarekin bat, ordenantza aztertzearen zain, mahai gainean geratzen da.

**ZORTZIGARREN PUNTUA:  
ALKATETZA BERRIA ETA EBAZPENAK.**

- 1.- 2009ko 1.sehilabeteko uraren errolda onartzea.
- 2.- 2009ko 1.sehilabeteko zaborren errolda onartzea.
- 3.- Alkatearen delegazioa Alkateordearengan.
- 4.- Landarrain baserrian zenbait obra egiteko baimena.
- 5.- Tetuan baserrian teilatua berritzeko baimena.
- 6.- Arzuriaga baserriaren fatxada margotzeko baimena.
- 7.- Ernioko jaietan erroskilak saltzeko baimena.
- 8.- 2009ko abuztuko fakturen zerrenda onartzea.

- 9.- Kilometroak-eko produktuak saltzeko baimena.
- 10.- Artegi eta gaztategi ihardueraren espedientean, iharduera baimena ematea.
- 11.- Solaka baserria berritzeko baimena ematea.
- 12.- Komunitatearen aldeko lanak egiteko eginiko eskaera onartzea.
- 13.-Etxeaudi Behekoa baserriko teilatua berritzeko baimena.
- 14.- 1/2009 Kreditu aldaketaren espedienteari hasera ematea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA:  
GALDERAK ETA ERREGUAK.**

1.- Luis Albisua zinegotziak komentatzen du, Plenoetan onarturiko akordioak bidali egin behar direla eta gaurko datan 2009ko uztailaren 16ko Plenoan onartuko akordioak bidali gabe daudela, hala nola, Maritxu Uzkudunen inguruko mozioa.

Idazkariak erantzuten dio, berak normalean eta zinegotzi edo Alkateak ezer esaten ez dioten bitartean, normalean Plenoetako ziurtagiri eta jakinerazpena hurrengo Plenoak aurreko Plenoko akta onartu ondoren bidaltzen dituela. Hori bai, espedienteren bat tramitatzen segi behar baldin badu eta denbora ez galtzeko, aurreik ere bidaltzen direla ROF-eko 206.artikuloak esaten duena aipatuaz.

2.- Luis Arzallusek dio, gazteen txosna gazteak gelditzen direla eta Udalak txosnagatik ez duela ezer ordaindu behar.

Beste gairik ez dagoenez, gaueko hamarrak laurden gutxi direnean, Alkateak amaitutzat eman du udalbatzar hau eta nik, Idazkari gisa, Akta jaso dut.

Alkateak